



Done Laurendi

ermita

Aldaerak: San Lorentzo
Ahozkoa:



43°11'7"

2°34'21"

Berriz Irudian / A. Arbula

San Lorentzo edo euskaraz Done Laurendi Erromako diakonotako bat izan zen eta 258an urtean martirizatu zuten parrillan erreta. Tradizioaren arabera Iberiar penintsulan jaio zen. Kondairak dioenez erretzen ari zela esan zuen: *Assum est, inquit, versa et manduca* ('erreta nago, eman buelta eta jan'). Oso santu zaharra da eta bere jaiera edo debozioa oso zaharra da kristauen artean. Jai eguna abuztaren hamarrean da.

Trentoko kontzilioak ekarri zuen santuen euskarazko izenak baztertzea eta erdarazkoak nagusitzea. Horregatik Bizkaian ohikoa izan da jatorrizko Laurendi izenaren ordez euskaraz ere gaztelaniazko Lorentzo erabiltzea euskal fonetikara makurtuta. Berriz, inguruko herri guztietan bezala Sallobente erabiltzen da euskaraz. Hau gaztelera zaharreko San Llorente-ren euskerazko aldaera da. Izenak esangura galdu

zuen XX. mendean Mañarian harrobi bat eraikitzean izena ez zuten ulertu eta Sallobente jarri beharrean Zallo Venta izendatu zuten.

Mendibilen dago auzoari izena ematen dion ermita hau. Atal bakarrak osatuta dago, forma luzanga duena. *Done Petri Txiki* (**Ikus Done Petri Txiki**) ermitaren moduan, elizpea oinaldean dauka, eta, iparraldeko haizeetatik babes-teko, horma luzatu diote. Haatik, bestean ez bezala, elizpeko teilatuari eusteko koloma klasiko moztuak erabili dituzte, zokaloaren gainean eutsita. Sarrera bertan dago, eta, hormaren ordez, zurezko hesia du barrualdea ikusi ahal izateko. Oso harlandu onaz egindako eraikina da. Alboko fatxadan dauka kanpai-horma klasizista, harlanduzkoa hori ere eta pinakuluekin eta bolekin azkendua.